



# lore-zerrendak

## Zer dira lore-zerrendak?

**Landare laguntzaileak** landare-espezieak dira; ez dira labore nagusia baina baratzean sartzen ditugu onurarik dakartelako: izurriak eta gaitzak kontrolatzen dituzte, fauna laguntzailea erakarri eta kontserbatzen dute, laboreen kalitatea hobetzen dute.

Landare laguntzaileak baratze ekologikoan sartzeko modu bat **lore-zerrendak** dira. Urteko eta hainbat urtetako landare-espeziez osaturiko zerrendak dira, intsektu erabilgarriak erakartzeko, laboreen ondoan kokatze aldera edota korridoreak osatze aldera.

### Onurak

- Polena eta nektarra emateaz gain, babes eta hazkuntza lekua ematen diete polinizatzaileei eta beste intsektu onuragarriei. Horrela, polinizazioa eta sistemaren autoerregulazioa sustatzen dira, baratzearen osasuna eta izurrien kontrola sustatzen lagunduta
- Ekoizpena dibertsifikatzen da eta bestelako erabilera duten landareak jar daitezke: baratzerako landare-tratamenduak prestatzea, osasun erabilera, sukaldaritza erabilera...
- Haizetik babesteko oztopo fisiko gisa dihardute edota beste lursail batzuetatik iristen diren tratamendu fitosanitarioen ondorioen kontra

### Zailtasunak

- Espazio bat okupatzen dute baratzean.
- Jakin beharra dago zer espezie diren interesgarriak intsektu laguntzaileentzat, zer landare jarri aukeratzean.
- Zainketa batzuk egin behar zaizkie: belarrak kendu, ureztatu...
- Kontuz ibili beharra dago landare inbaditzaile edo lehiakideekin

## Espezieak aukeratzeko kontuan hartu beharreko irizpideak

- > Landarearen bukaerako **eitea**. Belarra, herrestaria edo zuhaixka izateak eraginen du landaketa-esparrua.
- > **Zikloa**: urteko edo biurteko espeziea den, bizikorra edo iraunkorra. Horrek baratzean non jarri baldintzatuko du.
- > **Nola ugaltzen den**: haizearen bidez edo landare-ugalketa bidez (aldaxkak, estolioiak, sasi-zatiketa...).
- > Ereintza edo landaketa **aroa**.
- > **Garapen-baldintzak** (lurzoru mota, intsolazioa, nutrizio-premiak, ur-premiak...).

## Lore-bandak diseinatzeko kontuan hartu beharreko gomendioak

- > Loraketa mailakatua, ahalik eta denbora-tarterik handiena hartuko duena eta laboreekin nahiz izurri-eragin handien denboraldiekin bat datorrena.
- > Intsektuendako **espezie erakargarriak**
- > Landare **landatarrak**, aise landatzekoak, errekerimendu gutxikoak, erraz mantentzekoak.
- > Ingurunera eta klimara **egokitutako** landareak, laborea eragotziko ez dutenak.
- > Familia ezberdineko eta eite ezberdineko espezieak jartzea (belar-espezieak, zuhaixkak...)
- > Landare interesgarriak izan daitezela, **erabilera osagarriak** izan ditzaketelako: apainketa, sukaldaritzza, urrintsuak, osasuna, fruta...
- > Izurriak ongi kontrolatze aldera, kalkulatu da % 2ko azalera okupatu behar dela.
- > Laboreetatik gehienez 30 m ingurura jarriko ditugu.

## Zenbait familia interesgarri

### Konposatuak




Ilen kultibatua (*Calendula officinalis*)




Milorria (*Achillea millefolium*)

### Boraginazeoak




Zolda-belarra (*Symphytum officinale*)



Borrajá (*Borago officinalis*)

### Ezpaindunak




Erromeroa (*Rosmarinus officinalis*)



Izpilikua (*Lavandula angustifolia*)

### Gurutzedunak



Latxortena (*Lobularia maritima*)

### Unbeliferoak



Mihilua (*Foeniculum vulgare*)

CPAEN  
NNPEK  
EKOLOGIAK



lore-  
zerrendak